



## Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko maiatzaren 21eko ebazpena, Hezkuntza Saileko Garbiketa eta Sukaldaritzako pertsonalaren zerrenda urtero birbarematzeko prozedura irekitzen duena.

Dagoeneko Garbiketa eta Sukaldaritzako zerrendetan daudenentzat urteroko birbarematze-aldia irekitzea du ebazpen honek helburu.

### 2021eko BIRBAREMATZEA.

**LEHENA.** Urtero, birbarematze-aldiarekin bat etorrira, egiten zaie Sail honetako Garbiketa eta Sukaldaritzako zerrendetan dauden ordezkogaiei zerrenda horietan aldaketak egiteko eskaintza; halaber, izango dute datorren ikasturteko dei guztiei uko egiteko aukera, hori guztia indarreko hitzarmen kolektiboak III. eranskinean xedatutakoaren arabera.

**BIGARRENA.** Ordezkogaien fitxak web orri honetan daude eskura: <https://irakaslegunea.euskadi.eus/es>

Fitxetan, datu pertsonalak ez ezik, zonalde bakoitzean egiaztatutako zerbitzu-denborak (2021eko apirilaren 16ra arte zenbatuak) eta aukeratutako lanaldien erregimena ere ematen dira. Halaber, pertsona horrek ikasturte osorako dei guztiei uko egin dien konkretatzen da fitxan.

<http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/> (Atala: Lan-arloak→Pertsonala→Ordezkapenak egiteko ordezkogaiak→Pertsonal ez irakaslea→Garbiketa eta Sukaldaritza. Birbaremazioa) web orria izango da, deialdi honen helburu diren aldi baterako kontratatzeko Sukaldaritzako zerrendei begira, emango diren ebazpenak eta hartzaile anitzentzako egintzak argitara eman edo jakinarazteko bitartekoa.

Fitxan agertzen diren datuak abenduaren 5eko 3/2018 lege organikoak, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera erabiltzeko berariazko baimena emango du fitxen aldaketak. Informazioa izaera pertsonaleko datuen fitxategi batean sartuta egongo da eta fitxategi horretara sartzeko datuak zuzentzeko, ixteko eta aurkatzeko eskubideak erabili ahal izango dira, une orotan eta lege horrek eta garatzen duen gainontzeko araudiak xedatutako terminoetan.

**HIRUGARRENA.** Ordezkogaiek fitxetan egin nahi dituzten aldaketa guztiak aplikazio telematikoaren bidez egin beharko dira. Ondorengo web orrian zehaztuta dagoen gida bat dute ordezkogaiek eskura: <http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/> (Atala: lan-arloa→Pertsonala→Ordezkapenak egiteko ordezkogaiak→pertsonal ez irakaslea→Garbiketa eta Sukaldaritza. Birmaremazioa).

Kontua hartu beharreko gaiak:

Datu pertsonalak: Ordezkogai bakoitzak izango du bere fitxan agertzen diren datu pertsonalak (helbidea, posta elektronikoa edo telefonoa) aldatzeko aukera.

Libre egotea. Egon nahi duen zonaldeak eta lanaldi osoa edota partziala aukeratu ahal izango ditu ordezkogai bakoitzak, zerbitzuak dituen edo ez alde batera utzita; ondorioz, zerbitzuak ematera edozein zonaldean eta lanalditan deitu ahal izango zaio.

Uko egitea. Aukera hau behar den laukian adierazi beharko da eta, kasu horretan, ez da datorren ikasturte osoan inolako eskaintzarik/deirik egingo. Egoera horretan beste bi urtetan egon ahal izango da eta, ondorengo bi birbarematzeetan zerrendetan ohiko alta eskatzen bada, zonalde bakoitzean egiaztatuta zegoen zerbitzu-denbora berreskuratuko da.

Zerrendetatik at uztea: 2018/19ko, 2019/20ko eta 2020/21eko ikasturteetan ikasturte osorako uko egitearen egoeran egon diren ordezkogaiek aplikaziora, 2021/22ko ikasturterako uko egitearen aukera kentzeko, sartu beharko dut. Horrela egin ezean, zerrendatik kenduko zaizkie.

Emandako zerbitzuen erreklamazioa: fitxan agertzen diren zerbitzuen guztizkoarekin ados egon ezean, ekainaren bigarren hamabostaldian argitara emango den behin-behineko ebazpenean xedatuko da erreklamatzeko epea.



**LAUGARRENA.** Fitxa aldatzeko epea. Maiatzaren 24ko 09:00etatik ekainaren 18ko 23:59ra bitartean, biak barne, aplikazio informatikoaren bidez.

Ordezko gaiak nahi adina aldiz sartu ahal izango dira aplikaziora, kontsultak egin edo aldaketak egiteko, birbarematzeko epea irekita dagoen bitartean. Gordetako azken aldaketak ondorioak izango dituztenak izango dira.

Fitxetan aldaketarik egin ezean, 2020ko birbarematzearen datuak hartuko dira kontuan.

Horregatik guztiarengatik, apirilaren 11ko 79/2017 dekretuak (apirilaren 21eko 76. Zk.ko EHAA) 10. artikuluan ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz,

#### **EBAZTEN DUT:**

**LEHENA.**- Garbiketa eta Sukaldaritzako kolektiboan zerbitzuak egiztatzen dituen aldi baterako lan-legepeko pertsonalaren 2021. Urteko birbarematze-prozesua. <https://irakaslegunea.euskadi.eus/es/> web orrian eskura dauden fitxetan egin ahal izango dira aldaketak, maiatzaren 24ko 09:00etatik ekainaren 18ko 23:59ra arte. Aldaketarik egin ezean, 2020ko birbarematzearen datuak hartuko dira kontuan.

**BIGARRENA.**- Ekainaren bigarren hamabostaldian ebazpen berri bat ematea. Ebazpen horretan 2021/2022ko ikasturtean aldi baterako premiak betetzeko Garbiketa eta Sukaldaritzako zerrendak osatzen dituzten ordezko gaien zerrenda emango da argitara, ikasturte horretan zerbitzuak emango dituen pertsonala birbarematzeko prozesuaren ondorioz. Ebazpen hori behin-behineko zerrendekin batera emango da argitara: <https://irakaslegunea.euskadi.eus/es/>.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 21ean

**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

**BLANCA GUERRERO OCEJO**